| Debagoieneko Mankomunitatearen Empresa Ekintzetarako Zentroaren Araudia. | Reglamento del Centro de Iniciativas Empresariales de la Mancomunidad del Alto Deba. |
|---|---|
| *1. art.Araudiaren xedea.* | *Art. 1.ºObjeto del Reglamento*. |
| Araudi honen xedea Enpresa Ekintzetarako Zentroak (aurrerantzean EEZ) emango dituen zerbitzuak arautzea da. Prestazio hau, enpresa-egitasmoak dituztelarik, aholkularitza eskatzen duten pertsona fisikoentzat dira, baita sortu berri diren enpresentzat ere, beren bideragarritasuna laguntza behar badute. | Constituye el objeto del presente reglamento la regulación de la prestación de servicios por el Centro de Iniciativas Empresariales (a partir de ahora C.I.E.). Esta prestación irá dirigida a personas físicas con iniciativas empresariales que soliciten asesoramiento para su implantación, así como a empresas de reciente constitución que necesiten apoyo para posibilitar su viabilidad. |
| **2. art.EEZren helburua**. | *Art. 2.ºObjetivo del C.I.E.* |
| Debagoieneko Mankomunitatearen Garapen Ekonomirako Eskualde Agentzi Zerbitzuko EEZk enplegua sortuko duten enpresa–ekintzak garatzea lortu nahi du. | El C.I.E. de la Mancomunidad del Alto Deba, Servicio de Agencia Comarcal de Desarrollo Económico, pretende el desarrollo de iniciativas empresariales que fomenten la creación de empleo. |
| *3. art.Emango dituen zerbitzuak.* | *Art. 3.ºServicios a Prestar*. |
| Debagoieneko Mankomunitateak Garapen Ekonomirako Eskualde Agentzia Zerbitzuaren bidez Enpresa Ekintzetarako Zentroaren programa garatuko du enpresa-ekintza berrien bidegarritasuna ahalbidetzeko, tutore-laguntza emanez eta kokalekuaren aldi baterako lagapena eginez. | La Mancomunidad del Alto Deba, a través del Servicio de Agencia Comarcal de Desarrollo Económico, desarrolla el programa de Centro de Iniciativas Empresariales al objeto de posibilitar a través de un acompañamiento tutorizado y la cesión temporal de ubicación, la viabilidad de nuevas iniciativas empresariales. |
| *3.1.Proiektuaren harrera.* | *3.1 Recepción del Proyecto.* |
| EEZko tutoretzak aurkezten zaizkion enpresa-proiektuak hartuko ditu. | La tutoría del C.I.E. recepcionará los proyectos empresariales que se le presenten. |

| | |
|---|---|
| 3.2.*Informazioa eta Aholkularitza*. | 3.2.*Información y Asesoramiento*. |
| Sustatzaile edo enpresari esleituriko tutoreak, informatu orientatu eta aholkularitza emango du proiektuaren zehaztapen, negozio plan eta enpresaren bideragarritasunari buruzko arazoetan, baita hori guztia martxan jartzeko ere. | El tutor asignado al promotor o a la empresa, informará, orientará y asesorará en las cuestiones relacionadas con la definición del proyecto, el plan de negocio y viabilidad de la empresa, así como en la puesta en marcha de la misma. |
| *3.3.Kudeaketa eta Kontrol Tresnak.* | *3.3Herramientas de Gestión y Control.* |
| Tutoreak proiektuaren esku ipiniko ditu EEZn bertan dauden tresnak eta proiektuarentzat erabilgarriak izan daitezkeenak. | El tutor pondrá a disposición del proyecto las herramientas de que disponga el C.I.E. y sean interesantes para el proyecto en cuestión. |
| *3.4.Prestakuntza.* | *3.4.Formación.* |
| EEZk heziketa-ekintzak antolatuko ditu sustatzaileen prestakuntza edo enpresa berrien kudeaketa alderdi guztietatik hobetu ahal izateko. | El C.I.E. podrá organizar acciones formativas dirigidas a mejorar la preparación de los promotores o la gestión de las nuevas empresas en todas sus facetas. |
| *3.5.EEZren lokalen erabilera.* | 3.5.*Uso de los Locales del C.l.E.* |
| Hala nahi duten sustatzaile edo enpresek EEZren lokal eta instalazioak erabiltzea eska dezakete aldi baterako. Erabilera hau izango da: | Aquellos promotores o empresas que así lo consideren podrán solicitar el uso temporal exclusivo de módulos del C.I.E. para la ubicación inicial de la actividad empresarial. Este uso conllevará: |
| • Enpresari esleitutako moduluaren erabilera esklusiboa. | • Uso exclusivo del módulo que se asigne a la empresa. |
| • Faxa eta fotokopiagailua erabiltzea | • Uso de fax, fotocopiadora. |
| • Posta eta fax mezuak esandako lekura bidaltzea, EEZ utzi ondorengo 3 hilabetetan. | • Envío de correo y fax a la dirección determinada, durante los 3 meses posteriores al abandono del C.I.E. |
| • Bilera gela erabili ahal | • Uso de sala de reuniones, previa |

| | |
|---|---|
| izatea, aurrez eskatuta. | reserva. |
| Lokalak erabiltzeko baimena Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Juntari eskatu behar zaio proiektuaren tutorearen txostenarekin batera. Aurrez Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia Zerbitzuko Informazio Batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu araudi honetako 6. art.an ezarritako balorazio irizpideen arabera, eta egoerari buruzko irizpena helaraziko dio Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Juntari. | Las solicitudes de autorización para el uso de locales se dirigirán a la Junta de Gobierno de la Mancomunidad del Alto Deba acompañadas de un informe del tutor del proyecto, siendo previamente analizadas y evaluadas, según los criterios de valoración recogidos en el Art. 6.º de este reglamento, por la Comisión Informativa del Servicio de Agencia Comarcal de Desarrollo Económico que dictaminará la solicitud elevándola a la Junta de Gobierno de la Mancomunidad del Alto Deba. |
| ***4. art.Zerbitzuen Eskatzaileak.*** | ***Art. 4.ºSolicitantes de los Servicio.*** |
| Debagoieneko Mankomunitateko EEZk bere zerbitzuak ondorengoei zuzentzen die: | El C.I.E. de la Mancomunidad del Alto Deba, dirige sus servicios a: |
| a)Pertsona fisikoei, Debagoiena eskualdean enpresa bat eratzeko asmoz proiektu zehatz samarra sustatzen badute. | a)Personas físicas que promuevan un proyecto más o menos definido, dirigido a constituir una empresa en el ámbito de la Comarca del Alto Deba. |
| b)Zerbitzuen erabilera eskatu aurreko sei hilabeteetan eratutako enpresei, egoitza soziala Debagoiena eskualdean badute, kapital soziala 120.202 € baino gutxiagokoa, hasierako plantila hamar langile baino gutxiagokoa, eta sustatzaileek prestakuntza edo esperientzia profesionala baldin badute jarduera horretan. | b)Empresas constituidas dentro de los seis meses anteriores a la fecha de solicitud de la prestación de estos servicios, con domicilio social en la Comarca del Alto Deba, un capital social inferior a 120.202 €, una plantilla inicial de menos de diez trabajadores y cuyos promotores cuenten con formación o experiencia profesional en la actividad. |
| ***5. art.Eskariak Bideratzea.*** | ***Art. 5.ºTramitación de las solicitudes***. |
| EEZren modulu baten erabilera esklusiboa lortzeko idatziz eta eredu normalizatuan eskatu beharko da. | Las solicitudes de autorización de uso exclusivo de módulos del C.I.E. se harán por escrito, según modelo |

| | |
|---|---|
| Eskaerari ondoren aipatzen diren arloak biltzen dituen enpresa-proiektua gehitu beharko zaio. Eskaerak, Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Juntak onartuko ditu. Eskaerek proiektuaren tutorearen txostena eta garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia zerbitzuko Informazio Batzordearen txostena beharko dute ebazpena eman ahal izateko.<br><br>EEZren modulu baten erabilera esklusiboa eskatu nahi dutenek aurkeztu behar duten enpresa aurreproiektuan sartu beharreko alderdiak:<br><br>I.SUSTATZAILE(AR)EN GAITASUNA<br><br>• Aurkeztutako produktu/zerbitzuaren hartzaile izango den merkatuaz sustatzaileak duen esperientzia<br>• Aurretiazko esperientzia enpresa munduan. Sustatzaile(ar)en Curriculum Vitae gehitu behar da.<br><br>II.PRODUKTUA/ZERBITZUA<br><br>• Deskribapena, asetzen dituen premiak<br>• Produktu/zerbitzuak dituen abantaila eta eragozpenen azterketa konparatzaile laburra, premia berberak asetzeko merkatuan dauden besteekin alderatuz eta hauekiko desberdintasun faktore edo klabeak zeintzuk diren adieraziz.<br><br>III.MERKATUA<br><br>• Merkatu objetiboa.<br>• Etorkizunerako proiekzioak, espero den hazkunde–tasa eta proiekzio horien oinarrian dauden arrazoiak | normalizado, al que se adjuntará proyecto empresarial que recoja los aspectos que abajo se relacionan. Estas solicitudes se elevarán a la Junta de Gobierno de la Mancomunidad, junto con el informe del tutor del proyecto y el correspondiente dictamen de la Comisión Informativa de Agencia Comarcal de Desarrollo Económico, al objeto de su resolución.<br><br>Aspectos que deberá recoger el proyecto empresarial anexo a las solicitudes que opten al uso exclusivo de un módulo del C.I.E.:<br><br>I.CONDICIONES PERSONALES DEL PROMOTOR/ES<br><br>• Experiencia en el mercado al que va dirigido el producto/servicio que se presenta.<br>• Experiencia previa en el mundo empresarial (se adjuntará Curriculum Vitae del promotor /es).<br><br>II.PRODUCTO/SERVICIO<br><br>• Descripción, necesidades que satisface.<br>• Análisis comparativo de ventajas e inconvenientes del producto/servicio respecto a los que, encontrándose en el mercado, satisfagan las mismas necesidades, indicando factores o clave de diferenciación en relación a los ya existentes.<br><br>III.MERCADO<br><br>• Mercado objetivo.<br>• Proyecciones de futuro, determinando la tasa de crecimiento esperada, y las razones que |

| | |
|---|---|
| azalduz.<br>• Lehiakideak. | explican esas proyecciones.<br>• Competencia. |
| IV.HELBURU ETA ESTRATEGIAK<br><br>• Helburuak epe labur, ertain eta luzera.<br>• Proiektuaren bidegarritasuna bermatzeko faktore erabakiorrak. | IV.OBJETIVOS Y ESTRATEGIAS<br><br>• Objetivos a corto, medio y largo plazo.<br>• Factores clave para garantizar la viabilidad del proyecto. |
| V.MARKETING PLANA<br><br>• Salmenta aurrikuspenak epe ertainera.<br>• Salneurri edo prezioak.<br>• Banatze bideak<br>• Publizitatea.<br>• Sustapena. | V.PLAN DE MARKETING<br><br>• Previsión de ventas a medio plazo.<br>• Precios.<br>• Canales de distribución.<br>• Publicidad.<br>• Promoción. |
| VI.EKOIZPEN – PLANA<br><br>• Ekoizpen prozesu osoaren deskribapena.<br>• Baliabide materialen premia: Makineria, tresneria, instalazioak, etab.<br>• Eskulanaren premia.<br>• Kokalekuaren premia. | VI.PLAN DE PRODUCCION<br><br>• Descripción del proceso productivo completo.<br>• Necesidades de medios materiales: Maquinaria, utillajes, instalaciones, etc.<br>• Necesidades de mano de obra.<br>• Necesidades de ubicación. |
| VII.GIZA BALIABIDEAK<br><br>• Bete beharreko lanpostuen zerrenda.<br>• Organigrama. | VII.RECURSOS HUMANOS<br><br>• Relación de los diferentes puestos de trabajo a cubrir.<br>• Organigrama. |
| VIII.EKONOMIA ETA FINANTZA PLANA<br><br>• Aktibo finko material eta inmaterialetako inbertsioen deskribapen laburra.<br>• Finantzaketa-plana.<br>• Aurrikusten diren ustiapen-kontuak (3 urte). | VIII.PLAN ECONOMICO-FINANCIERO<br><br>• Inversiones en activos fijos materiales e inmateriales.ó Plan de financiación.<br>• Cuentas de explotación previsionales (3 años). |

| | |
|---|---|
| • Balantzeak. | • Balances. |
| ***6. art.Proiektuak Baloratzeko Irizpideak.*** | ***Art. 6.ºCriterios de Valoración de los Proyectos.*** |
| Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia Zerbitzuko Informazio Batzordeak egingo du empresa proiektuen balorazioa eta irizpena ondorengo irizpide hauen arabera: | Los proyectos empresariales serán valorados y dictaminados por la Comisión Informativa del Servicio de Agencia Comarcal de Desarrollo Económico en base a los siguientes criterios: |
| a)Sustatzaile(ar)en egokitasun eta bategarritasuna garatu nahi den enpresa ideiarekiko (gehienez ere 6 punturekin baloratuko da).<br>b)Proiektua ekonomia eta gizarte ingurunera egokitzea (gehienez ere 6 punturekin baloratuko da).<br>c)Enpresa proiektuaren ekonomia eta finantza bidegarritasuna (gehienez ere 10 punturekin baloratuko da).<br>d)Zuzenean eta zeharka enpresa berriak sortuko dituen lanpostuen kopurua (gehienez ere 6 punturekin baloratuko da).<br>e)Proiektuaren sustatzaileak Debagoienean izatea egoitza (gehienez ere 6 punturekin baloratuko da).<br><br>f)Sustatzaileek prestakuntza ikastaro arautu gabeetan aurrez esku hartu izana (gehienez ere 6 punturekin baloratuko da). | a)Adecuación-compatibilidad del promotor /es con la idea empresarial a desarrollar. (Se valorará con un máximo de 6 puntos).<br>b)Adecuación del proyecto al entorno socio-económico. (Se valorará con un máximo de 6 puntos).<br>c)Viabilidad económica y financiera del proyecto empresarial. (Se valorará con un máximo de 10 puntos).<br>d)Número de puestos de trabajo, directos e indirectos que creará la nueva empresa. (Se valorará con un máximo de 6 puntos).<br>e)Residencia de los promotores del proyecto en la comarca del Alto Deba. (Se valorará con un máximo de 6 puntos).<br>f)Asistencia previa de los promotores a cursos de formación no reglada. (Se valorará con un máximo de 6 puntos). |
| Proiektu bat EEZ programan sartu ahal izateko, goian aipaturiko balorazio irizpideetan jasotako puntuen %50 lortu behar du gutxienez (40). Edonola ere, programan sartzeko beste bi baldintza izango dira: Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Juntak baiezko erabakia hartzea eta behar hainbat baliabide edo bitarteko erabilgarri izatea horretarako. | Para que un proyecto se incluya en el programa C.I.E. deberá obtener un mínimo del 50% de los puntos recogidos en los criterios de valoración anteriormente citados (40). No obstante, la inclusión en dicho programa estará condicionada a la decisión que adopte la Junta de Gobierno de la Mancomunidad del Alto Deba al respecto y a la disponibilidad de medios para dicha inclusión. |

| | |
|---|---|
| ***7. art.Onuradunari Jakinarazpena.***<br><br>EEZko instalazio komunak erabiltzeko edota moduluen erabilera esklusiboa egiteko eskaria onartu ondoren Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Juntak, onuradunari erabakiaren berri emango dio.<br><br>Zerbitzu hauetaz balia daitezkeen proiektuei buruzko azterketa eta erabakia eskariak hartu ahala egingo da, ordena kronologikoan. | ***Art. 7.ºNotificación de la Prestación del Servicio al Beneficiario.***<br><br>Una vez aprobada, por la Junta de Gobierno de la Mancomunidad del Alto Deba, la concesión de autorización para el uso exclusivo de módulos del C.I.E., se notificará la misma al beneficiario.<br><br>El análisis y la decisión sobre los proyectos que se beneficiarán de estos servicios se realizará por orden cronológico de recepción de solicitudes. |
| ***8. art.Dokumentazio Osagarria Aurketea.***<br><br>EEZko modulu baten erabilera esklusiboaz baliatzeko baimena jaso duten pertsona fisiko eta juridikoek, Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Juntaren akordioaren jakinarezpenetik hilabeteko epearen barruan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:<br><br>a)EIZ-IAEren kopia konpultsatua.<br>b)Enpresako bazkide edo titularren eta langileen altak Gizarte Segurantzan.<br>c)Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak eguneratuta dituztela egiaztatzeko ziurtagiria.<br>d)Argindar hornitzailearekin duen kontratua.<br>e)Dagokion Udalarekin duen kontratua, urez hornitzeko eta zabor bilketaren zerbitzuaz baliatzeko.<br>f)Erantzukizun zibil orokorreko polizaren kopia konpultsatua.<br>g)Irekitze/Jarduera baimena.<br>h)540,91 €ko findantza ezarri izanaren ziurtagiria. | ***Art. 8.ºPresentación de Documentación Complementaria.***<br><br>Las personas físicas o jurídicas beneficiarias del uso exclusivo de un módulo del C.I.E. presentarán en el plazo de un mes contado a partir de la notificación del acuerdo de la Junta de Gobierno de la Mancomunidad del Alto Deba los siguientes documentos:<br><br>a)Copia compulsada del I.A.E.<br>b)Altas de los socios o titulares de la empresa y los trabajadores de la misma en la Seguridad Social.<br>c)Certificados de encontrarse al corriente de pagos con la Hacienda Foral y la Seguridad Social.<br>d)Contrato con empresa suministradora de energía eléctrica.<br>e)Contrato con el Ayuntamiento correspondiente para el suministro de agua y servicio de recogida de basuras.<br>f)Copia compulsada de póliza de responsabilidad civil general.<br>g)Licencia de actividad/apertura<br>h) Comprobante de constitución de fianza por importe de 540,91€ |

| | |
|---|---|
| Sortu nahi den jarduera beharturik balego Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen espedientearen izapideak egitera, pertsona fisiko edo juridiko kontratatzaileak dagokion baimena eskatuko dio dagokion Udalari . | En el caso de que la actividad a desarrollar se encuentre obligada a tramitar el expediente de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas o Peligrosas, la persona física o jurídica solicitará la correspondiente licencia ante el Ayuntamiento correspondiente. |
| Hala badagokio, pertsona fisiko edo juridikoa arduratuko da proiektu tekniko bisatua egiteaz, beharrezko udal-tasak ordaintzeaz eta aipaturiko izapideen ondoriozko zuzenketa neurriengatik egin beharreko egokitzapen lanak egiteaz. | La persona física o jurídica correspondiente se hará cargo, en su caso, de la ejecución del proyecto técnico visado y el abono de las tasas municipales correspondientes así como de las obras de adaptación derivadas de las medidas correctoras que pudieran derivarse de la antedicha tramitación. |
| ***9. art.Zerbitzuaren iraupena***. | ***Art. 9.ºDuración de la Prestación del Servicio.*** |
| a) EEZko modulu baten erabilera esklusiboak gehienez ere urtebeteko (1) epea dauka, baina urtez urte luza daiteke, gehienez ere hiru (3) urte arte, Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Juntak aurrez horrela erabakitzen badu. | a) El uso exclusivo de un módulo del C.I.E. tendrá una duración máxima de un (1) año que podrá prorrogarse, previa decisión de la Junta de Gobierno de la Mancomunidad del Alto Deba, por periodos de igual duración hasta un máximo total de tres (3) años. |
| EEZko lokalaren erabileraren luzapena eskatzeko, sustatzaileek aurrez baimen-eskaera aurkeztu beharko dute, eskatzen den dokumentazioarekin batera. | Los promotores interesados en prorrogar su estancia en el CIE deberán presentar con anterioridad la solicitud y adjuntar la documentación requerida.. |
| b)Debagoieneko Mankomunitatearen Gobernu Juntak ahalmena izango du aurreko ataletako epe horiek luzatzeko, proiektuaren konplexutasunak eta gauzatzeko beharrezko epeek hori eskatzen duen aparteko kasuetan. | b)La Junta de Gobierno de la Mancomunidad del Alto Deba podrá en casos excepcionales, derivados de la complejidad del proyecto y del plazo necesario para su duración ampliar los plazos determinados en los apartados anteriores. |
| c)Aurreko atalean aipatutako aparteko kasuetan luzamendu-aldietan ordainduko diren tasak honakoak izango dira: | c)En los casos excepcionales previstos en el apartado anterior las tasas a abonar durante los periodos de prórroga serán las siguientes: |

| | |
|---|---|
| 4.urtea: 3.urteari dagokion tasa + %35.<br><br>5.urtea: 3.urteari dagokion tasa + %50.<br><br>6. urtea: 3.urteari dagokion tasa + %75 | 4.ª año: Tasa correspondiente al 3er. año + 35%.<br>5.º año: Tasa correspondiente al 3er. año + 50%<br>6º año: Tasa correspondiente al 3er año + 75% |
| d) b atalean ezarritako luzapen berezi hauek EEZren lokalak erabiltzeko beste baimen-eskaririk aurkezten ez den bitartean egingo dira. Enpresa berri bat sartzeko lokala behar izanez gero, luzamendu hauek bukatu egingo dira. | d)Estos casos especiales de prórroga previstos en el apartado b) se hallarán condicionados a la presentación de nuevas solicitudes de autorización de uso de locales del C.I.E. En caso de necesidad del local para la incorporación de una nueva empresa, se dará por finalizado este periodo de prórroga. |
| e)Erabilera berrietarako lokala behar izanez gero, baimena luzatua duen aurreko enpresak gehienez ere bi hilabeteko epea izango du lokala uzteko. | e)En estos casos de necesidad de local para nuevas incorporaciones, la empresa cuya autorización de uso se ha prorrogado deberá cesar en el uso del mismo en un plazo máximo de dos meses. |
| Emandako zerbitzua behar baino lehen uzteak ez du penalizaziorik edo fidantzaren konfiskaziorik eragingo, deuseztapen garaian kontraturik dauden zerbitzuen ordainketarako edota jarduerak eragindako kalteen konpentsaziorako izan ezik. | El cese anticipado en el servicio prestado no conllevará penalización ni incautación de la fianza, salvo para el pago de los servicios contratados a la fecha de rescisión o compensación de desperfectos ocasionados por la actividad. |
| ***10. art.Zerbitzuaren Onuradunen Betebehar Orokorrak*.** | ***Art. 10.Obligaciones Generales de los Beneficiarios del Servicio*.** |
| 1.Proiektu eta enpresen sustatzaileek tutore-arduradunak ezarritako norabideei jarraitu beharko diete metodologia eta dedikazioari dagokienez, eta Agentziako Zuzendaritzak ezarritakoei EEZ barruko portaerari edo bertako instalazioen erabilera eta zainketari dagokionez. | 1.Los promotores de los proyectos y de las empresas, deberán seguir las directrices marcadas por el tutor responsable en cuanto a metodología y dedicación y por la Dirección de la Agencia en relación al comportamiento dentro del C.I.E. así como al respecto del uso y cuidado de las instalaciones del mismo. |

| | |
|---|---|
| 2.Proiektu eta enpresen sustatzaileek herri erakundeei ordaindu beharko dizkiete dagozkien zerga, tasa eta prezioak. | 2.Los promotores de los proyectos y de las empresas deberán abonar a las instituciones públicas los impuestos, tasas y precios a los que estén obligados. |
| 3.Proiektu eta enpresen sustatzaileak kontratua ez betetzearen erantzule izango dira, honek EEZri ekonomikoki ebaluagarri diren kalteak eragiten dizkion neurrian. | 3.Los promotores de los proyectos y de las empresas responderán de los incumplimientos del contrato que causen perjuicios evaluables económicamente al C.I.E. |
| 4.Mankomunitateak edozein momentutan eskatu ahal izango die sustatzaleei beharrezko dokumentazioa haien betebehar legalak betetzen direla ziurtatzeko. | 4. La Mancomunidad podrá solicitar en cualquier momento a los promotores la documentación necesaria para acreditar que cumplen con sus obligaciones legales. |
| ***11. art.Onuradunen Betebehar Bereziak***. | ***Art. 11.ºObligaciones Especiales de los Beneficiarios***. |
| a)EEZko moduluen erabilera esklusiboaz baliatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek, modulua, faxa eta fokotopiagailua erabiltzeagatik momentu bakoitzean indarrean dauden tasak ordaindu beharko dizkiote Debagoieneko Mankomunitateari. | Las personas físicas o jurídicas beneficiarias del uso exclusivo de módulos del C.I.E. deberán abonar a la Mancomunidad del Alto Deba las tasas vigentes en cada momento por el uso del local, fax y fotocopiadora. |
| Antzuolan eta Arrasaten dauden modulu erabilgarrien zabalera eta kokalekua, plegu honen 1. Eranskinean zehaztuko da. | Los módulos disponibles en Antzuola y Arrasate, su superficie y ubicación se detallan en el Anexo 1 de este pliego. |
| Lagatako lokala eta berari atxikiriko elementu eta zerbitzu komunak baimendutakoaren arabera erabili beharko dituzte enpresen sustatzaileek: Zertu nahi duten jarduerarako beharrezko baimenak eskatu eta lortu beharko dituzte, eta beren jarduerarako lokalean obrak egiteko edota edozein makineria jartzeko baimena eskatu beharko diote aurrez eta idatziz EEZri. | Los promotores de las empresas deberán utilizar el local cedido, y los elementos y servicios comunes inherentes al mismo, de acuerdo con el uso permitido, solicitando y obteniendo las autorizaciones necesarias para la actividad a realizar, y formulando previamente y por escrito al C.I.E. la correspondiente solicitud de autorización para la realización de obras en el local o la instalación de |

| | |
|---|---|
| | cualquier maquinaria para su actividad. |
| Enpresa sustatzaileek kontserbazio, segurtasun eta higiene aldetik egoera onean eduki behar dute lokala. | Los promotores de las empresas deberán mantener el local en buen estado de conservación, seguridad e higiene. |
| Ezarritako 540,91 €ko fidantza itzuliko zaio sustatzaileari, lokala erabiltzeari uzterakoan, ordaintzeke dituen zorrak kitatu ondoren eta lagatako lokalean edo hango osagaietan egindako kalteen gastuak ordaindu ondoren. | La fianza constituida de 540,91 € será devuelta al promotor al cesar el uso del local, una vez descontadas las deudas pendientes y los gastos evaluados por responsabilidades en daños al local o sus elementos cedidos. |
| Kontrataturiko zerbitzuen hornitzaileei (argindarra, ura, telefonoa) kontratuen altak eta modulua utzi arteko kontsumoak ordaindu beharko dizkiete sustatzaileek. | Los promotores deberán abonar a los suministradores de los servicios que contraten (energía eléctrica, agua, teléfono, etc.) las altas de los respectivos contratos y los consumos que realicen hasta que abandonen el módulo. |
| Enpresa sustatzaileek epea bukatzerakoan utzi egin beharko dute lagatako lokala, eta EEZren mesederako izango dira haiek beren kargura egindako aldaketa edo obrak. | Los promotores de las empresas deberán abandonar el local cedido a la finalización del plazo, dejando a beneficio del C.I.E. las modificaciones u obras que hayan efectuado a su costa. |
| ***12. art. Lokalaren erabilera esklusiboa galtzea*.** | ***Art. 12.ºPérdida del derecho de uso exclusivo de local*** |
| Ondorengo kasuetan galduko da lokalaren erabilera esklusiboa: | Será causa de pérdida del derecho de uso exclusivo del local: |
| 1. Dagokion tasa ez ordaintzea.<br>2. 8. artikuluan eskatutako dokumentazioa garaiz ez aurkeztea.<br>3. Erabileraren luzapena eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ez aurkeztea. | 1. El impago de la tasa correspondiente.<br>2. La no entrega en plazo de la documentación exigida en el artículo 8 de este Reglamento.<br>3. La no entrega de la documentación solicitada para la concesión de prórroga. |

| | |
|---|---|
| 4. Betebehar legalak betetzen direla ziurtatzeko eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea.<br><br>5. Betebehar legalak ez betetzea.<br><br><br>***13. art.Eskarak Aurkeztea*.**<br><br>Araudi honi behin-betiko onarpena ematen zaion egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak. | 4. La no entrega de la documentación solicitada para acreditar el cumplimiento de sus obligaciones legales.<br>5. El incumplimiento de sus obligaciones legales.<br><br><br>***13.ºPresentación de Solicitudes.***<br><br>Podrán presentarse solicitudes a partir de la fecha de aprobación definitiva del presente reglamento. |